



Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 19ko Aginduak, zeinaren bidez deialdia egiten baita Euskal Autonomia Erkidegoko irakasleen kidegoetan sartzeko hautaketa-prozesuetarako, egonkortzeko oposizio-lehiaketaren eta oposizio-lehiaketa arruntaren sistemen bidez, honako hau ezartzen du 4.4 oinarriaren bigarren paragrafoan:

*“Onartutako izangaien zerrendan agertzeak ez du esan nahi deialdi honetan eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztenik. Beraz, onartutako pertsonen prozedura honetan parte hartzetikerrorritako eskubideak izateko, 12. oinarrian jasotako dokumentuak aurkeztu beharko dira, eta, ondorioz, **eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatuta eta azterketa medikoa gainditu beharko da.**”*

3.3.2 oinarriak honako hau ezartzen du: *“(…)Izangaiek beren gain hartzen dute aurkeztutako dokumentazioaren egiazkotasunaren erantzukizuna. **Dokumenturen bat faltsua bada edo manipulatu bada, bertan behera geratuko da deialdi honetan parte hartzeko eskubidea, edozein erantzukizun dagoela ere.**”*

Bestalde, aipatutako aginduaren 12.3 oinarriak honako hau xedatzen du hautatutako pertsonen egin beharreko jardueren artean:

*“Eskuratu nahi den kidegoko eta espezialitateko eginkizunak betetzeko gaitasun funtzionala zehazteko, eta hautatutako pertsonen irakaskuntza-funtzioak eraginkortasunez eta autonomiaz bete ahal izango dituztela egiaztatzeke, Hezkuntza Saileko Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuan osasun-azterketa egiteko deituko zaie. Gaikuntza hori zehazteko, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren balorazio profesionalerako indarreko gida hartuko da erreferentziatzat, lanpostuen zereginak eta eskakizun psikofisikoak definitzen dituena. Azterketa horrenemaitza «gai» edo «ez gai» izango da, eta Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari helaraziko zaio.*

***Justifikaziorik gabe osasun-azterketara joaten ez badira, ez-gaitzat joko dira. Justifikatutako arrazoirik badago, beste egun batean joan beharko da osasun-azterketara, eta ez dago justifikaziorik proba behin betiko salbuesteko.**”*